

Iñaki Mendiguren

Euskal Harriak

Lotsa guztiak galdurik, oraingoan liburu bat gomendatu nahi dizuet: *Euskal Harriak*, Joseba Azkarraga Etxagibel-ena (Alberdania, 2011). Ez da liburu asko argitaratzen euskaraz honek duen gaiaz, baina hori, beste merezimendurik gabe, ez litzateke aski arrazoi gomendatzeko. Liburu honek, ordea, zer pentsa asko ematen du; hortaz, buru-nekerik nahi ez duenak ez dezala irakurri, eta segi dezala telebista ikusten (izango ditu ...*circenses*, eta zenbat eta urriago *panem*, orduan eta ugariago!). Are gehiago, liburu honek kezka eta egonezina sortzen dizkizu; beraz, egungo egoeran bestela ere nahikoa buruhauste baduela eta “bertan goxo” jarraitu nahi duenak ez dezala irakurri. Izan ere, liburuak esaten digu (era askotara eta modu aberatsean esan ere) krisi ekonomikoaz gain, energia, klima, ekosistemak, gizartea, elikagaiak, kultura, hizkuntzak eta alderdi psikiko-espirituala, dena dugula krisian eta arnasestuka, zibilizazio-krisia delako gurea.

HUHEZIKo irakaslearen arabera (eta ez da lehenengoa eta bakarra hau esaten), honela ezin dugu jarraitu; hazkunde mugagabearen paradigma bukatzen ari da, eta hazkunde-osteko garaian sartuta gaude, zibilizazio moderno-industrialaren beheraldian, alegia.

Soziologoaren kezka da nolakoa izango ote den beheraldi hori: ordenatua, emankorra eta oparoa, ala desordenatua, kaotikoa eta hondagarria. Iritzia ematen hasita, iruditzen zait bietatik izan dezakeela etorkizunak, eta dagoeneko gertatzen ari den zerbait areagotuko dela: eskaria gehitu eta lehengaiak gutxitu ahala prezioek gora egingo dute, eta horrek bizimodu iraunkorrrak bilatzea ekarriko du, orain baino serioago; bestetik, ordea, kontsumoa gutxitzea ekarriko du ezinbestean, eta hori, ohi bezala, zuzentasun gutxirekin eta ahulenak larrutik nozituz egingo da. Kalkulatzen



DANI BLANCO

dute azken urtean Britainia Handian 25.000 lagun hil direla berokuntza eskasagatik, eta hori erregaien prezioak asko igo direlako urteotan eta gobernuak kendu egin dielako pentsiodunei berotzeko ematen zien dirulaguntza (BBC, otsailak 8).

Liburua irakurri ondoren, baliteke abadi-noarra profeta apokaliptiko samarra dela pentsatzea norbaitek. Ez dakit, baina profetak, bere neurrian, ez al dira oso beharrezkoak gizartearen osasunerako? Liburu honek oheburuko lagun (ez bakarria!) izan beharko luke bere bizitzan gero eta koherentzia handiagoaren bila dabilenarentzat, eta zer esanik ez *res publican* eragin nahi duenarentzat: sindikalista, politikari, gizarte-eragile eta abarrentzat. Eta bakoitzak irakurri ondoren, besteekin iritzitrukerako materiala izan beharko luke. Makina bat eztabaida zozoago entzuten da bazterretan!

Susmoa dut, oraingoz, gu gehienok (eta pedagogia gehien egin beharko lukeen herri-agintariak barne) etorkizuna atzera begira eraiki nahian ote gabiltzan, egungo beheraldi zorigaitzoko hau lehenbailehen gainditu eta galdutako oparoaldia bere hartan berreskuratzeko itzaropenez, alegia. Horren adibide, Petronorrek, gasolinaren eskaria jaitsi dela-eta, ekoizpen-murrizketak iragartzean batzuek egindako adierazpenak; edo zabor-bilketaren inguruan egunotan ikusitako jarrera batzuk; edo kontsumoa (auto-salmenta eta abar) jaistean entzun diren intziri eta aieneak...

Ez dakit nola aterako garen bizi dugun kinka honetatik, baina baliteke iraganean tematzea alferrikakoa eta azkenean etsigarria izatea. Dorre tzarrek lilura elektrikoa sortzen diguten garaioan (*c'est drôle!*), ez ote genuke hobe herri txikiaren konplexuek-edo eragindako handikeriak ahaztu eta beste apaltasun batez bizitzeko asmoa hartzea? ■

